

## Tetrazepama duten botikak baztertzeko aholkatu du Europako Sendagaien Agentziak


Tetrazepam muskulu-lasaigarria duten botikak ez erabiltzeko aholkatu du Europako Sendagaien Agentziak. Izan ere, ohartu dira osagai horrek albo-ondorio larriak eragin ditzakeela, batez ere larruazalean; horregatik, haren ordeztze beste lasaigarri batzuk erabiltzeko gomendatu dute.

Oharrean zehazten denez, Europako Batasuneko hamahiru herrialdetan saltzen dira tetrazepama duten botikak, tartean, Euskal Herrian. Sendagai arruntak dira, bizkarreko edo lepoko mina arintzeko eta muskulu-espasmoak tratatzeko erabiltzen baitira: Miozepam, Relaxam, Musapam, Myolastan...

Orain, baina, frogatu dute albo-ondorioak sortzeko arriskua handiagoa dela eragiten duten mesedea baino;

hortaz, aholku garbia eman dute: sendagileek ez dezatela agindu, eta erabiltzen ari diren pazienteak sendagilearengana joan daitezela eta harekin kontsulta dezatela. Are gehiago, litekeena da Europako Batasunak tetrazepama duten botikak saltzeko baimena bertan behera uztea.

Haisera batean, Frantziako Sendagaien eta Osasun-produktuen Agentziak jo zuen alarma. Hain zuzen, hark agindutako azterketa batean, ikusi zuten tetrazepamak larruazaleko erreakzio larriak eragiten zituela kasu batzuetan. Gainera, albo-ondorioak ezin ziren aurreikusi, eta tratamenduak iraun bitartean zein ondoren ager zitezkeen, dosi normaletan.



Tetrazepamaren 3Dko egitura. ARG.: CROBERTS/DOMEINU PUBLIKOA.

Horrekin batera, Europako Sendagaien Agentziak jakinarazi du, tetrazepama bezodiazepina bat bada ere, gainerako bezodiazepinek ez dutela larruazaleko erreakzioak eragiteko gaitasun berdina. Nonbait, egitura desberdina dutelako dago alde hori baten eta besteen artean. ●

## Antzekotasunak gizakien eta arbasoen erdiko belarrin

### Duela 2 milioi inguruko espezieen belarriko hezurtxoak aztertu ahal izan dituzte

*Australopithecus* baten eta *Paranthropus* baten erdiko belarriko hezur fosilak aurkitu dituzte, eta bien mailuak gizakiaren antzekoak dira. Hori ikusita, adituek uste dute gizakion adar ebolutiboko hominido horiek gai zirela 2 eta 4 kHz arteko maiztasuneko soinuak entzuteko, eta haien

entzumena gertuago zegoela gizakietatik beste primatetatik baino.

Oso zaila da jakitea nolako entzumena zuten desagertutako espezieek, entzuteko jardueran gorputz-atal askok hartzen baitute parte, garuna barne, eta atal horiek denak ez baitira fosiletan

kontserbatzen. Erdiko belarriko hezurak ere oso gutxitan fosiltzen dira, baina kasu gutxi batzuetan kontserbatu egin dira. Hain zuzen, paleoantropologo-talde batek bi kasu bereziren azterketaren emaitza argitaratu du PNAS aldizkarian.

Batetik, *Paranthropus robustus* espeziearen ale baten hezurak aurkeztu dituzte,

duela 1,8 milioi urtekoak; erdiko belarriko hezur guztiak —mailua, ingudea eta estriboa— kontserbatu dituen fosil zaharrena da. Bestetik, duela 2-3 milioi urteko *Australopithecus africanus* baten hezurak ere aurkitu dituzte, nahiz eta belarriko hezur guztiek ez duten iraun.

New Yorkeko Binghamton Unibertsitateko paleoantropologoek argitaratu dituzte emaitzak, Atapuercako aztarnategian lan egiten duten Juan Luis Arsuagarekin eta Ignacio Martinezekin batera. Aztertutako hezurretatik, mailuek dute antz handiena gizakien hezurarekin, bai *Australopithecus*arenak eta bai *Paranthropus*arenak. Biak proposak dira 2 eta 4 kHz arteko maiztasunak entzuteko, hizketan garrantzi handia duten maiztasunak. Beste primatetik maiztasun horiekiko sentikortasun txikiagoa dute. ●



*Paranthropus robustus* bat, Pretoriako Transvaal museoan, Hegoafrikan. ARG.: JOSÉ BRAGA ETA DIDIER DESCOUENS/CC\_BY-SA.